

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIALANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Oier Lakuntza, Andrea Irisarri, Yoar elkarteak eta Ilundain Haritz-Berri fundazioak, 2015eko Gazteria Sariaren irabazleak

Sari horiek abenduan banatuko dira, Nafarroako Eguna ospatzeko ekitaldien barnean


Jueves, 12 de noviembre de 2015

Oier Lakuntza, Andrea Irisarri, Yoar elkarteak eta Ilundain Haritz-Berri fundazioak izan dira 2015eko Gazteria Sariaren irabazleak; sari horiek abenduaren 1ean banatuko dira Nafarroako Eguna ospatzeko ekitaldien barnean.

Zehazki, Oier Lakuntzak Gazteen Balioaren saria jasoko du, Andrea Irisarrik Boluntario Gazte Solidarioaren saria, Yoar elkarteak Partaidetza Sozialarena, eta Ilundain fundazioak Entitate edo Erakundearen saria.

Hala erabaki du gaur goizean Nafarroako Foru Komunitateko Gazteria Sariaren Aholku Batzardeak. Xede horretarako bildu da gaur goizean, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Gazteria Zuzendariordetzaren egoitzan.

Sarituek egindako lanaren aitortpen soziala sinbolizatzen dute sari horiek, diploma baten bidez eta 2016an Gazteriarri lotuta Nafarroa Gobernuak antolatutako ekitaldi ofizialetara joateko gonbidapena.



Oier Lakuntza, 2015eko Gazteen Balioa sariaren irabazlea.

interes sozialekoa izendatua; haren helburu nagusia arrisku-egoeran, zailtasunak edo gatazka sozialean dauden gazteak gizarteratu eta lan-munduratzea da.

1984an hasi ziren lanean Burlatako San Blas parroko zenbait pertsonak emandako bultzadari esker, Eugenio Lecumberri buru zela. Harrezkero, eta gaur arte, 2.500 gazte baino gehiago izan dira beren programetan. Lan sozial horri ingurumeneko hezkuntzaren sustapenean egindako lana gehitu behar zaio Abeletxe Eskolako programa baten bidez; azken hori, Nafarroako eta alboko beste autonomia erkidego batzuetako ikasleentzat da. Programa hori 1987an sortu zenetik, instalazio horietan 110.000 bisita baino gehiago jaso dituzte.